



6. ATALA: MUSIKARIAK

KARTA DIDAKTIKOA

LABURPENA

	Jarduerak	Titulua	Helburua	Baliabideak
Hasiera fasea	1. Jarduera	Zer dakigu musikarien inguruan?	Musikarien inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.	Musika tresna bat.
	2. Jarduera	Bai, esan? Musikariak	Musikarien lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta.	Ordenagailua Proiektorea Bideopodkasta
Garapen fasea	3. Jarduera	Ezagutzen ditugun musika estiloen zerrenda egin.	Musika estilo desberdinak zerrendatu eta identifikatzea.	I. Eranskina: Musika estiloen txartelak. II. Eranskina: musika estiloen zerrenda.
Ekoizpen fasea	4. Jarduera	Gaia aukeratu	Ikasgelako abestiaren oinarrian egongo den gaia aukeratzea.	
	5. Jarduera	Abestiaren oinarria aukeratu.	Guztion artean ikasgelako abestiari erritmoa jarriko dion abestia aukeratzea.	
	6. Jarduera	Aukeratutako oinarriaren gainean abestia sortu.	Abesti bat aukeratu eta horren gainean ikasgelako abestia izango den abestia sortzea.	

* Karta didaktiko hau proposamen bat da. Irakasle bakoitzak bere ikasgelara zein ikasleen interesetara moldatzeko aukera du

MUINA

Helburuak

- Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako musika aitzakitza hartuta, musikarien mundua ezagutu eta abesti bat sortuko dugu.
- Espezifikoak
 - Musikarien lanbidean murgiltzea.
 - Hizkuntzarekin jolasteko gaitasuna lantzea.
 - Ardurak betetzea.
 - Helburuak lortzeko taldean lan egitea.
 - Egoera desberdinen aurrean sortzen diren emozioak lantzea.
 - Sentimenduak adierazteko beste esparru batzuk ezagutu eta esploratzea.

Azken xedea edo ekoizpena

- Azken xedea izango da ikasgelako pintxo bilduma sortzea eta ikasgelako pintxo dastaketa antolatzea.

Ikasle taldea

- Bigarren ziklorako pentsatuta dagoen karta didaktikoa da, printzipioz. Hala ere, karta didaktikoaren amaieran gainontzeko zikloetara egokitzeko proposamenak biltzen dira.

KARTA DIDAKTIKOA

Lehenengo fasea

1. jarduera → Zer dakigu musikarien inguruan?

- Helburua: Musikarien inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.
- Gelara sartuko gara musika instrumentu batekin. Asanbladan eserita, instrumentuaren inguruko elkarrizketa bat hasiko dugu. Hona hemen elkarrizketa hasteko galdera gidari batzuk: Zer da objektu hau? Nork erabiltzen du? Ezagutzen duzue objektua erabiltzen duen norbait?...

Irakaslearentzat oharra:

- Jarduera hau aurrezagutzak pizteko besterik ez da. Informazio asko ez dute izango, eta gure ardura izango da elkarrizketa bideratzea pistak emanaz. Hala ere, interesgarria da ezjakintasun hori ere balioan jartzea eta horren inguruan hausnartzea. Ezjakintasun hori gehiago jakiteko irrika pizteko erabiliko dugu.

2. jarduera → “Bai, esan? Musikaria”

- Helburua: Musikarien lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta.
- Bai, esan? Bideopodkasta ikusiko dugu. Lehenengo jardueran landutakoarekin eta bideopodkasteen jasotako informazioarekin lanbidean gehiago murgilduko gara. Jasotako informazioan ikasleei interesa piztu dien gaiak oinarri hartuta ikasleak hausnarketara bideratuko ditugu eta lanbidearen inguruko ondorioak ateratzera bultzatuko ditugu.

Irakaslearentzako oharra:

- Elkarrizketa horretan irakasleak hainbat input eman beharko ditu helburu komun batzuetara iristeko. Atera behar diren ondorioetako batzuk hauek dira:
 - **Praktika.** Guztia beti ongi egiteak asko nekatzen du. Zerbait behin eta berriz egiteak, maiztasun handiarekin egiteak hobekuntzak ekartzen ditu. Adibidez, trikitia ongi jotzen dut, bai, baina asko jo dudalako. Praktikak egiten gaitu maisu.
 - **Hautuak.** Bizitzan hautuak egitea garrantzitsua da, baita egiten dugun horretan pentsatzea ere. Behin aukeratzen duzu zure bizitzaren noranzkoa, zer izan nahi duzun eta zure lanbidea zein izango den, esaterako. Hala ere, behin erabaki hori hartuta, hortik denbora batera hautu horrekin jarraitzea erabaki dezakezu, edo ez.
 - Adibidez, Inesek behin erabaki zuen musikari izan nahi zuela. Ondoren, musikari izaten jarraitu nahi zuela erabaki zuen eta urtean zehar behin baino gehiagotan egiten du musikari izaten jarraitzeko hautua.
 - **Nor izan daiteke musikari?** Guztiok dugu haur bat barruan musika egiten duena. Guztiok dugu musikari, musikazale bat barruan, norberaren esku dago hori elikatzea edo ez. Sistemak borobiltzen gaitu eta horren ondorioz ongi abesten duena, ongi jotzen duena... soilik izan daitekeela musikari sinesten dugu eta hori ez da horrela. Hala ere, guztiok ezin gaitzke izan musikari. Musikariaren inguruan lanbide asko daude, teknikaria, produkzioa egiten duena, argiak pizten dituen, managerra... Errazagoa da inguruko lanbideetako bat izatea musikaria izatea baino.
 - **Konfiantzako pertsona.** Musika apurtxo bat egiteko lan asko egin behar da musikari izanda, eta bestelako erabakiak hartzen laguntzen dizun konplizea da managerra. Askotan ez dago managerrik, eta zu zeu zara zure buruaren managerra eta horrek asko nekatzen du. Konfiantzako pertsona bat ondoan edukitzeak erabakiak modu hobeko batean hartzen laguntzen ditu, eta lan egiteko modua desberdina izan daiteke, finean zure bizitza erraztu dezake.
 - Azken hau, bizitzako esparru ezberdinetara eraman daiteke.

KARTA DIDAKTIKOA

Garapen fasea

- **3. jarduera** → **Zein musika estilo ezagutzen dugu?**

- Helburua: Musika estilo desberdinak zerrendatu eta identifikatzea.
- Jarduera honen helburua lortzeko jolas bat egingo dugu. Ikasleak taldeka jarriko dira eta talde bakoitzari musika estiloen txartelak banatuko dizkiegu. Irakasleak musika jarriko du eta ikasleek abesti hori zein musika estilori dagokion adostu beharko dute. Behin taldean adostuta, estilo horri dagokion txartela erakutsi beharko dute.
- Behin jolasa eginda, agertutako estiloen zerrenda egingo dugu talde handian.

Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko duzu musika estiloen zerrenda eta jolaserako musika estiloen txartelak.

KARTA DIDAKTIKOA

Ekoizpen fasea

4. jarduera → Gaia aukeratzeko

- Helburua: Ikasgelako abestiaren oinarrian egongo den gaia aukeratu.
- Jarduera honetan, ikasleen interesekoa den gai bat aukeratu beharko da. Horretarako, irakasleak hainbat galdera gidari egingo ditu eta errepikatzen diren gaien zerrenda egingo du. Galdera gidari posibleak: Entzuten dituzuen abestietan zein gai jorratzen dira? Zure abesti gustukoenean zein gai lantzen da?...
- Ondoren, ikaskide guztiak ados jarri eta gai bat aukeratu beharko dute.

5. jarduera → Abestia aukeratzeko

- Helburua: Ikasgelako abestiari erritmoa jarriko dion abestia aukeratu.
- Jarduera honetan ikasleen gustukoa den abestia aukeratzeko dugu, ondoren horren gainean ikasgelako abestia eraikitzeko. Horretarako, ikaskide guztiak ados jarri beharko dira eta beraien gustukoa den abesti bat aukeratu beharko dute.

6. jarduera → Gu musikari!

- Helburua: Ikasleen musika estilo eta gai gogokoena oinarrian hartuta, abesti bat aukeratu eta horren gainean abesti bat sortuko dugu, ikasgelako abestia izango dena.
- Jarduera honetan ikaskide guztiak elkarlanean arituko dira ikasgelako abestia sortzeko. Adostutako abestiari letra aldatuko diote aukeratutako gaia oinarrian hartuta.
- Abestia amaitutakoan, ikasgelan abestuko dugu.

Irakaslearentzako oharra

- Ez dugu zertan letra guztia aldatu. Aurreko jardueran aukeratutako abestiari zati batzuk ken diezazkiokegu eta hutsune horiek aldatu.

Karta didaktikoa beste maila batzuetara egokitzeko proposamena

- Karta didaktiko hau bigarren ziklorako prestatuta dagoen arren, beste zikloetara egokitzeko aukera dago. Ziklo baxuagoetarako irakasleak emango duen laguntza eta ikasleei emango dizkieten baliabideak handiagoak izango dira. Adibidez, 6.jarduera egiteko irakasleak abesti baten letra banatuko dizkiete ikasleei. Kantu horretako letra desordenatuta egongo da eta ikasleek taldeka abestiko hitzak ordenatu beharko dituzte abestira erreala lortzeko. Ziklo altuagoetan berriz, sortutako abestia ikasgelara mugatu beharrean, guraso edo eskolako gainontzeko ikasle zein irakasleentzako kontzertu bat antolatzea bideratu daiteke saioa. Kontzertuan sortutako abestia abesteaz gain, ikasleen gustuko abestiak bersionatu daitezke.

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

I. Musika estiloen txartelak

POPA

ROCKA

KLASIKOA


SKA

OHARRA: Jolasa egiterakoan ez dago zertan txarteletan dauden musika estiloak landu, jolasa ikasleen gustuko estiloetara moldatzea proposatzen dizuegu.

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

II. Musika estiloen zerrenda



The screenshot shows the BADOK website interface. At the top, there is a purple header with three white circles on the left and a white share icon on the right. Below the header is a black navigation bar with the BADOK logo (BERRIAREN EUSKAL MUSIKAREN ATARIA) and a search bar labeled 'Bilatu'. A green 'KANTOK jolasa' button is also present. The main navigation menu includes: ALDIZKARIA, MUSIKARIAK, AZKEN KANTUAK, AZKEN BIDEOAK, AZKEN DISKOAK, ZERRENDAK, and PODCASTA. The main content area has a breadcrumb trail 'Home / Taldeak eta musikariak'. On the left, there is a 'GUZTIAK' sidebar with a list of music genres: Afrobeat, Bertsoa, Biografia, Black Metala, Bluesa, Country, Cumbia, Dance, Elektro-folka, Elektro-swinga, Elektronikoa, and Esperimentala. The main content area is titled 'GEHIEN ENTZUNAK' and features three tabs: 'AZKEN ASTEAN', 'AZKEN HILABETEAN', and 'OROTARA'. Below the tabs, there are five music tracks displayed as cards with album art and play buttons. The tracks are: 'Tiktara' (Nire zai daudenei), 'Saji' (Amuak), 'Blañ' (50), 'Zelanda' (Irentsita), and 'Frigo' (Feira). Below the tracks, there is a section titled 'BERRIENAK BADOK-EN' with a row of five album covers, including 'Galdu da oroitzapenetan', 'eraso!', and 'NOU POU POU EDIRUTAN'. At the bottom, there is a black music player interface with play, pause, and volume controls.

Musika estiloen zerrenda ondorengo estekan aurkituko duzu.

Webgunearen esteka: <https://www.badok.eus/euskal-musikak/>

© EITB MEDIA

